

# Gorputz okerrak

Miren Azkarate  
Badiola

**I**ritsi da uda. Aurtengoa arraroa edo hobeto esanda, ezohikoa. Hondartzetan sartzeko aforoa, herriko eta auzoetako festarik ez, bidaiatzeko arazoak, hauteskundeak... Inoiz ikusi ez dugun errealitatea dugu 2020. urteko uda honetan, jada pasatako udaberriarekin jakin bagenekiena, baina ikusi arte guztiz sinistu ez duguna.

Inoiz imajinatuko ez genituen agertokiak, urtea hasi zenetik mundu guztian zehar ikus daitezkeenak, ez da udaren ezaugarria eskusiboki. Nire amonak esaten zuen bezala, prest egon behar da datorrena datorrela aurre egiteko.

Hala ere, badira hain ezohikoak ez direnak ere, urtero-urtero errepikatzen direnak eta aurtengoan ere ez direna salbuespen izan: udarako dieta milagroak. Bereziki emakumeei zuzendutako iragarki eta kanpainez ari naiz. Gorputz lirain, polit, argal eta perfektu bat izateko dieten bonbardaketa zuzenaz mintzo naiz: zer jan, zein kirol egin eta tankerako argazki edo bideoak nonahi! Gainerako gorputzak, hor azaltzen ez diren guztiak ez desiragarriak eta onartezinak balira bezala. Gorputz zuzena gorputz okerraren alboan. Eta aurtengoan Bilgune Feministak ekainaren 28an Harrotasunaren Egunean erabili duen leloa erabiliz eta goraipatuz, “hemen

gorputz oker bakarra gorputz polizialarena da”. Betiko iltzatuta geratuko zaidan leloa, bereziki ona iruditzen zaidako eta arrazoi guztia duelako. Niretzat, gainontzean, ez baita gorputz okerrik; ez baita gorputz oker bat potoloa dena, edo iletsua dena, edo identitate ez normatibo bat adierazten duena, edo honen edo haren edo haiekin oheratzen dena. Horiek dira gorputz zuzenak niretzat, norbera ongi sentiarazten dutenak, azken finean, askeak direnak. Eta horrek Donostiako Koordinadora Transmarikabollo Feministaren beste lelo gogoangarri bat ekarri dit burura: “askatasuna ez da kontsumitzen, borrokatu egiten da”. Ni prest! •

# Urrunetik gidatua

Antton Izagirre

**H**auteskunde aurreko aldi luze baten amaierara heldu gara. Ofizialki hamabost egun iraun dituen kanpainak, hilabete luzeak eman ditu gure artean. Ilusio handirik sortu ez duela badiogu ere, ez da oharkabea pasa.

Ontzat ematen dugu, kanpainako ekitaldiak jendartearen boto eskubide askean eragiteko saiakerak direla esaten digutenean. Komunikabide publikoen eta diru publikoaren erabilera ontzat ematen ditugu. Berdintasunean, lehia demokratikoa sustatzen ari diren irudia helarazi digute. Ezarritako hauteskunde sistemen irizpide kritiko ahula dugu-lakoan nago.

Joko politiko horretan, aldian-aldian, hautesleriaren iritzia jasotzeko aitza-

kian, mozorroturiko inkesten emaitzak tartekatzen dizkigute. Zientzia enpirikoan oinarrituriko ariketak omen dira. Baina zer dago horren azpian? Zenbakiak neutralak ote?

Nire ustez inkesta horien emaitzak eta aditzera emateko moduak arau sortzaileak bilakatzen dira. Ez dago boterean dagoenarentzat inkesten aldeko emaitzak baino kanpaina hoberik.

Cristina Bicchieri filosofo andere italiarrak adierazi bezala, gertaera sozial jakin baten gaineko espektatiba enpirikoek norma edo araua sortzen dute. Jorera jakin bat izango duen pertsona kopuruaren arabera ustea, arau sozial bihurtzen omen da. Horrela bada, inkestetako boto joera iragarle ez baino, erakarle bihurtuko litzateke.

Beraz, hara hor, inkestak jendartearen iritzia azaleratzeko ala jendartearen iritzia bideratzeko tresna diren arteko ezbaia. Kontua ez da zientzialaria eta soziologoaren egitekoa auzitan jartzea, ordaintzen duenaren borondatea eta erabilera bistaratzea baizik. Azken hauen ustetan, botoa irabazleena norabide berean ematea erabat naturala litzateke. Joera nagusia arau sozial bilakatzea dute helburu. Irabazlearen zaldira igotzeko gonbidapena eginga digute.

Zer gertatuko litzateke, ordea, hilabete luze hauetan ikusi dugunak eta erakutsi digutenak aldatu izan balitu eta aukera berriak sortuko balira? Arau sozialak ere aldatzeko egiten dira. •